

Ustekabeko aitortza

Miren Azkarate
Badiola

Zinemaldia zinea baino askoz gehiago dela badakigu. Egun horietan zehar nazioarteko milaka begi egoten dira Donostiara begira eta esan bezala ez soilik bertan estreinatuko diren filmetara zuzenduak. Zein aktore etorri den eta nola doan jantzita edo zein hoteletan dagoen eta non bazkaldu zuen atzo eguneroko albiste bihurtzen dira. Egun horietan zehar lupa hiri-buruko txoko guztietara zuzenduta izaten da. Aukera paregabea izan da beti edozein aldarri ere luxuzko erakusleihotan jartzeko.

Ez naiz ordu pila bateko ilarak egiten dituen horietakoa film baten sarrera lortzeko eta ez dut jakiten askotan zein aktore famatu etorri den urte horretan Zinemaldira. Baina, tira, zinea gustuko dut eta izeba aktore eta donostiarra; beraz, interes minimo bat badut Zinemaldiarekiko. Aurten hunkitu nauten bi momentu bizi izan ditut; lehena, Viggo Mortensen estatubatuar aktoreak Donostia saria jasotzeko eskertze lerroak euskaraz irakurri zituenean; borondatea eta errespetua dagoenean gainontzekoa soberan dela erakutsiz. Eta beste momentua, oraindik

ikusten dudana bakoitzean negar malkoak eragiten dizkidana, Euskal Zinemaren Iri- zar sariak banatzerakoan Maider Oleaga epaimahai buruak egindako aipamen berezia Amaia Merinok eta Miguel Angel Llamasek egindako “Non dago Mikel?” filmari: «Giza eskubideen urraketa lazgarria eta sistematikoaren testigantza erakustegatik». Noizbait esan balidate hitz horiek horrelako leku batean entzungo nituela, ez nukeen sinetsiko. Pixkanaka bada ere, torturatuok bagoaz aitortza apur batzuk jasotzen plaza batzuetan. Nik behintzat hau ez dut sekula ahaztuko. •

Izurrialdia eta Euskaraldia

Antton Izagirre

Garai bereko bi gertakari. Sorburu desberdinekoak. Natura zientzia eta biologiari loturikoa bata, gizarte zientziei loturikoa bestea. Zientziaren ikuspegitik pandemiaren aurka eta euskararen alde eragiteko ezinbestekoa ote da estrategia desberdinak erabiltzea ala aukerakoa da bata zein bestea erabiltzea? Zeren baitan hartu erabakia? Ikus dezagun. Pandemiaren aurka ezarri diguten ordena oso zuhurra da. Distantzia soziala, maskara eta eskuen higiena ezinbestekoa dela diote zientzialariek eta agintariek hori lortzeko hartu beharreko neurriak, aginduak, kontaketa estuak, zigorrak eta abar ezarri dizkigute. Horren ondoan, beldurrean oinarria duten estrategia psikologikoak ere erantsi dituzte.

Batzuen ustez, pentsa zitekeen, elkartasunezko edo limurtze estrategiak erabilita, norbanakoen edo taldeko borondatearen arabera neurriekin helburu bera lor zitekeela. Jabetu dira, ordea, talde sozialen egituretara joan gabe ezin direla gainditu egiturazkoak diren arazoak. Euskaraldian, aldiz, bigarren estrategia- ren alde egin dugu. Euskararen erabilera- ren aldeko borondatezko jarrera indibidualak eta taldekoak lehenetsita. Ikuspegi emozionalak, limurtzaileak martxan jarriaz, euskararen erabileraren aldeko jarrera positiboak eta aukerazko erabakiak indartuz aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboak eragitea espero eta nahi dugu. Galdera zera da: Zer dio kasu honetan soziolinguistikaren ikuspegi zientifiko-

ak? Nola aurre egin gure arteko estrategia eta jarrera “negazionistei”? Egiturazko neurriak hartzen ez badira eta euskararen erabilera komunikazio eta harreman esparru guztietara heltzeko epeko plangintzak eta ezarpenak onartu eta inplementatzen ez diren bitartean, Euskaraldia bezalako egitasmoek hanka motz geratzeko arriskua dute. Norbaitek esango dit hori beste upel bateko ardoa dela, baina beldur naiz ar- dura politikoa duten gure agintariak ez ote diren Euskaraldiren goraldi emozio- nalera apuntatuko eta haiei dagokien egi- tekoa, erabilera arautzearena, hutsaren hurrena izango. Batak ez luke bestea zuri- tu beharko. Bitartean, aurrera Euskaraldia. •